

“LEITZULIA” BTT MENDI LASTERKETA ARAUDIA

ANTOLATZAILEA, IRTEERA DATA, LEKUA ETA ORDUA:

Irabazi asmorik gabeko elkarte den “Aurrera K.E.”ak, LEITZULIAren lehendabiziko edizioa antolatu du, “Mendibil BTT Taldea” batzordearen bidez. Kirol ekitaldi hau BTT martxa zikloturista izanen da, ez lehiakorra, eta 2023ko IRAILAREN 30an ospatuko da.

Irteera goizeko 9:00etan izanen da, Leitzako plazatik (Nafarroa), eta helmuga ordua 15:00etan izanen da, plazan bertan.

Antolatzaileak eskubidea izanen du irteera data, lekua eta ordua aldatzeko, eguraldiak edo bestelako arrazoiren batek baldintzatuko balu, eta beti ere parte-hartzaileen onerako izanen balitz.

DORTSALEN BANAKETA:

Dortsalen banaketa Leitzako plazan egingen da probaren egun berean, Irailaren 30an, goizeko 7:30etik 8:45era.

Dortsala jasotzeko parte-hartzaileek IZEN-EMATE ORRIAREN EGIAZTAGIRIA erakutsi behar DUTE, ordainketa egin ondoren jasoko dutena, edo izen emanda dagoela erakusten duen agiri identifikagarria.

IZEN-EMATEA:

Kirol Probak web orriaren bidez egingen da izen ematea: <http://www.kirolprobak.com>

IZENA EMATEKO PREZIOA 25€ izanen da

Antolatzaileak KIROLO PROBAK enpresa kontratatu du izen-ematearen kudeaketarako, beraz, izen-emateari buruzko edozein gertakari dela ere parte-hartzailearen eta kontratatutako enpresaren artean konpondu beharko da, [http:// www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) web orriaren bidez.

Izen-ematea 2023ko Maiatzaren 6AN hasiko da arratsaldeko 15:00etan eta www.kirolprobak.com web orrian agertuko da noiz arte izanen den izen-ematea. Parte-hartze kopurua mugatua da, izen-emate ordena zorrotz jarraituko delarik. Baimendutako kopurura iritsitakoan izen-ematea automatikoki itxiko da.

BALIOGABETU EZIN DAITEZKEEN IZEN-EMATEAK:

Izen-emateak ezin dira baliogabetu, izena eman duenak ordaindutako kopurua galduko du eta antolatzaileak ez ditu bere gain hartuko finishers poltsen bidalketa gastuak. Izena eman duena agiri identifikagarri batekin aurkeztuko balitz probaren egunean, lasterkari poltsa jasoko luke.

IZEN-EMATEAN ALDAKETAK DEBEKATUTA DAUDE:

Izen-emateen titulartasuna aldatzea debekatuta dago, eta beraz, izen-emateen orri ofizialean agertzen ez den pertsonen gainean ez du inongo ardurarik izanen antolatzaileak.

Era berean, aurrez izena eman ez duenak proban sartzea debekatuta dago. Antolatzaileak ez du bere gain hartuko izena eman ez duen pertsonak lasterketa egiten badu, edo ofizialki izena emanda dagoen beste baten izenean parte-hartzen badu.

IBILBIDEA:

42 km eta 1400 +ko desnibela izanen du, ERDI/GOI mailako zailtasunekotzat hartua dago.

Antolatzaileak probaren hasierako tartea arautuko du, martxa neutralizatu gisara (gida batekin eta neurtutako martxa izanik), hasiera horretan herriko hainbat kale zeharkatuko dituztelako parte-hartzaileek eta ondoren PLAZAOLako trenbidetik igaroko da lehenbiziko tartea. Modu honetara pilaketak eta erorketak ekidin nahi dira.

Ezinbestean probaren ibilbidea, anoa guneak eta kilometrajea aldatu behar izanez gero, antolatzaileak horretarako eskubidea izanen du, betiere behar bezala jakinarazi ondoren.

Antolatzaileak, edozein unetan indargabetu edota bertan behera utz dezake proba, ezinbestean hala egin beharra sortuz gero.

KONTROL-GUNEAK:

Proba ongi joan dadin eta parte-hartzaileen segurtasuna bermatzeko helburuarekin, ibilbidean zehar 2 KONTROL-GUNE egonen dira, lehenbiziko 2 anoa-guneekin bat egiten dutenak. Kontrol-gune horietara eskatutako ordutegia betez iristen ez direnak, edo antolatzaileen arabera erabat nekatuta, larritasunez, ageri den norbait ez bada behintzat, probatik ofizialki deskalifikatuta egonen dira eta irteera puntua erakutsiko zaie. Itzulerako ibilbide hau parte-hartzaile bakoitzak bere ardurapean egin beharko du, antolatzaileen gainbegiradarik gabe.

Kontrol-guneek anoa-guneekin bat egiten dute, eta honakoak dira:

- 1.GUNEA: BASA-KABI, 17,5 KM. Pasatzeko ordu muga, 12:00
- 2. GUNEA: UITZIKO GAINA, 34,5 KM. Pasatzeko ordu muga, 13:30

Maila egokia duen parte-hartzaile orok egin ahal izateko moduan daude jarrita ordu-mugak. Parte-hartzailearen batek kontrol-guneetatik kanpo ibilbidearekin jarraitzea erabakitzen badu, bide horretan ez du seinaleztapenik izanen, ez anoa-gunerik eta ez da "erratz-bizikletaz"

lagunduta joanen ere. Erabat bere ardurapean jokatu du, eta erabaki hori hartuta bidean gerta daitezkeen istripu, gertaera, lesio edo edozein gertakariren aurrean ez du erantzunkizunik izanen LEITZULIA antolatzen duen "Aurrera K.E."-ak, ezta bestelako babesle edo kolaboratzaileek ere.

IBILBIDEAREN MARKAKETA:

Ibilbidea behar bezala markatuta eta ikusgai egonen da eta punturik gatazkatsuenetan/zailenetan boluntarioak egonen dira.

DORTSALA:

Derrigorrezkoa da dortsala bizikletaren eskulekuan ongi itsatsita eramatea.

Dortalik ez daraman lasterkariak, bere borondatez jarri ez duelako edo izena emanda ez dagoelako edo eman ez zaiolako (IZEN-EMATE ZIURTAGIRIA, IDENTIFIKAGARRIA DEN AGIRIren bat, edo FEDERAZIOKO TXARTELA ez aurkezteagatik) erabat bere ardurapean jokatu du, eta erabaki hori hartuta bidean gerta daitezkeen istripu, gertaera, lesio edo edozein gertakariren aurrean ez du erantzunkizunik izanen LEITZULIA antolatzen duen "Aurrera K.E."-ak, ezta bestelako babesle edo kolaboratzaileek ere.

Helmugara iristean lasterketako boluntarioek dortsala jasoko dute eta lasterkari bakoitzari finisher poltsa emanen diote.

ASEGURUA:

Federatutako parte-hartzaileek federazio aseguruarekin babestuak daudela onartzen dute.

Federatu gabeko parte-hartzaileek Kirolprobak.com-en kontura izanen dute aseguru probaren egunean, haren edukia eta babesten duena onartzen dutelarik.

LASTERKARIEN POLTSA:

Parte-hartzaile guztiek opari poltsa bat jasoko dute (finisher poltsa).

SARIAK:

Lehiaketa-proba izanen ez denez, ez da sailkapen saririk izanen.

HAINBAT OPARI ZOZKATUKO dira parte-hartzaile guztien artean, eta opari horiek saridunei helmugan emanen zaizkie, dortsala itzultzerako garaian. Saritutakoen zerrenda helmugan zintzilikatuko dute eta ikusgai izanen da.

ANOA-GUNEAK:

Jan-edatekoa izanen duten 3 anoa-gune egonen dira, 2 ibilbidean zehar eta hirugarrena helmugan.

BESTE ZERBITZU BATZUK:

Autoentzako eta autokarabanentzako doako aparkalekua egokituko da Leitzan, bezperatik. Ahal den plaza gehienarekin eta haiek bete arteko aparkalekua izanen da.

Gainera, proba bukatutakoan dutsak eta bizikletak garbitaeko baliabideak egonen dira udal kiroldegian.

OSASUN ZERBITZUA:

Leitzako Udalak Larrialdietarako osasun zerbitzua jarriko du espresuki proba honetarako.

ZERBITZU TEKNIKOA:

Antolakuntzak OINARRIZKO zerbitzu tekniko eskainiko du, haren iritziz ibilbideko punturik egokienetan. Zerbitzu honek doitzea/doikuntza/ezarpenak, olioztatzea, zulaketak konpontzea eskainiko ditu.

INGURUGIROA:

Lasterketa, ia osotasunean, natura gune zoragarri batean zehar korrituko da. Hori dela eta, ingurua babestea derrigorrezkoa izanen da eta lasterkariak naturarekin errespetuz jokatu beharko dute, zeharkatuko dituzten bideak, errekek eta ingurua kontuan hartuz. Debekatuta egonen da edozer gauza lurrera botatzea. Jarraibide hauek betetzen ez dituenak probatik kanpo geratuko da.

IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA:

Ibilbidea ibilgailuen zirkulaziorako, oinezkoentzako, animalientzako eta nekazal ibilgailuentzako irekita egonen da. Lastekariak, beraz, zirkulazio arauak errespetatuko dituzte, arduragabekeriaz jokatzeko badute edota arau-hausterik egiten badute euren ardurapean izanen da.

Zirkulazio kodea ez errespetatzeagatik sor daitezkeen istripu edo kalteak ez dira antolatzaileen ardura izanen.

LURSAIL PRIBATUAK:

Ibilbideak, markatutako tokietatik pasatzeko beharrezko diren baimenak ditu, bai erakunde-baimenak zein baimen pribatuak.

ARAUDIARI LOTUTAKO BETEBEHARRAK ETA MURRIZKETAK:

- Debekatuta dago antolatzaileek ezarritako ordutegiaren aurretik lasterketari ekitea (ateratzea)
- Parte-hartzaile guztiek irteera-arkuaren azpitik pasa beharko dute
- Debekatuta dago antolakuntzako txirrindularia aurreratzea ibilbidea kontrolatuta edo neutralizatuta dagoen bitartean
- Proba ez da lehiakorra, eta beraz, kontrolatuta joanen da Antolatzaileek libre uztea erabakitzen duten arte
- Ibilaldia gelditu eginen da edo geldialdi baten ondoren berriz abiaraziko da, parte-hartzaileek segurtasun edo garbiketa arauak betetzen ez dituztela ikusten badute Antolatzaileek
- Beharrezko identifikazio ofizialik eta baimenik gabeko ibilgailuak taldera ez gerturatzeko eskatzen dugu. Probaren ohiko martxa arriskuan jartzen dute, eta segurtasun taldeak, Antolakuntzak edo Foruzaingoak ibilbidetik bota ditzakete.
- Parte-hartzaile guztiek 18 urteak beteak behar dituzte.
- Gaixotasunen bat duen parte-hartzaileak ezingo du proban parte hartu, bere burua eta gainerako parte-hartzaileak arriskuan jar ditzakeelako. Gaixo dagoenak bere egoera antolatzaileei ezkutatzen badie bere ardurapean jokatu du, eta erabaki hori hartuta bidean gerta daitezkeen istripu, gertaera, lesio edo edozein gertakariren aurrean ez du erantzunkizunik izanen LEITZULIA antolatzen duen "Aurrera K.E."-ak, ezta bestelako babesle edo kolaboratzaileek ere.
- Antolatzaileek beretzat gordetzen dute onartzeko eskubidea
- Derrigorrezkoa da homologatutako kaskoa janztea proba guztian zehar. Parte-hartzaile guztiek erreminta eta ordezkio pieza egokiak eraman beharko dituzte, baita txirrindulari arropa egokia ere, eguraldi baldintzekin bat datorren arropa. Telefono mugikorra aldean eramatea gomendatzen zaie txirrindularie.
- Parte-hartzaile guztiek antolatzaileen esana beteko dute, markatutako ibilbidea errespetatuz, eta parte-hartzailea izanen da bere akatsen arduradun bakarra.
- Parte-hartzailea izanen da bere jokabidearen erantzule bakarra, baita hirugarren batzuk tarteko direnean ere, ekitaldi honetan parte-hartzeak dakarren arriskua bere eginez (maila fisikoan zein psikikoan, zein erortzean edo bestelako lesioetan gerta daitezkeen kontuan izanda) bere ardurapean jokatu du, eta bidean gerta daitezkeen istripu, gertaera, lesio edo edozein gertakariren aurrean ez du erantzunkizunik izanen LEITZULIA antolatzen duen "Aurrera K.E."-ak, ezta bestelako babesle edo kolaboratzaileek ere.
- Parte-hartzaileek proba aurretik, bitartean edo ondoren sor ditzaketen gastu edo zorrak ez dituzte bere gain hartuko Antolatzaileek, ezta bizikletek edo bestelako ekipamenduek izan ditzaketen matxurak ere.
- Istripua gertatuz gero, parte-hartzaileek eta haien laguntzaileek aseguru bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera jokatu beharko dute (federazioarenak edo parte-hartzailearenak izan) eta aipatutako prozedura zorrotz betetzeko konpromeuza hartzen dute.
- Parte-hartzaile bakoitzak antolatzaileen arau eta argibideak bete beharko ditu, bereziki, proban zehar (kontrolak, irteera eta helmuga etab.)
- Proba bertan behera uzten duen lasterkari orok antolatzaileei jakinarazi behar die ahalik eta azkarren. Ibilbide ofizialetik ateratzean, anoa-guneak herriarekin bat egiten duten puntuak dauden bi bideetatik egitea gomendatzen da. Bide hori zuzena delako, eta ez duelako zalantzarik sortuko. Bertan behera uzten duen lasterkariak

antolatzaileen laguntzarik gabe iritsi beharko du bere helmugara. Jeitsierako bidean motordun ibilgailuak pasa daitezke eta beraz arreta handiz ibili beharko du.

- Baldintza fisiko egokiak betetzen ez dituen edo kontrol-guneetan ezarritako ordutegia betetzen ez duen edozein lasterkariri proba uzteko eska diezaiekete antolatzaileek.
- Zirkulazio arauak errespetatzen ez dituzten parte-hartzaileak, dortsalik ez daramatenak, proban izen-eman ez dutenak, arauzko kaskoa ez daramatenak, antolatzaileen ustez jokaera egokia ez dutenak, edota segurtasun agenteen antolatzaileen edo babes zibileko agenteen argibideak betetzen ez dituztenak kanporatuak izan daitezke.

IRUDI ESKUBIDEAK:

Araudi hau onartzen duen partaide orok, antolatzaileei eta beren babesleei, lasterketaren inguruan egindako argazki edo hartutako irudiak askatasun osoz (irati, prentsa, bideo, argazki, DVD, internet, kartel, argitarapen, komunikabideetan) erabili eta argitaratzeko baimena ematen diete epe mugarik gabe, eta irabazi ekonomikorik jasotzeko eskubiderik gabe.

DATU PERTSONALEN ERABILERA:

Indarrean den legediaren arabera, partaidearen datu pertsonalak LEITZULIA lasterketako antolatzaileen eta Kirol Probak enpresaren datu basean sartuko dira eta partaidea jakinaren gainean egonen da. Datuak gordetzea ez badu nahi, edo izen-ematearen ondoren kanpoan uztea nahi badu, interesdunak antolatzaileei jakinarazi behar dio, honek datuak ez gordetzeko prozedura burutu dezan.

ARAUDIA ONARTZEA:

Ekitaldi honetan izen-emateak araudia bere osotasunean onartzen duela esan nahi du. Araudia ez ezagutzeak ez du partaidea araudia betetzetik salbuetsiko. Antolatzaileek beretzat gordetzen dute salbuespenezko egoerak bere modura konpontzeko eskubidea.